



LESAKA
gara

**Lesakako Udalak eta Nafarrako Gobernuko Lurralde Kohesiorako
Departamentuak Lesakako Udal Plan Orokorra berritzeko hitzarmena sinatu
dute.**

Nafarroako Lurralde Antolamenduko zuzendari nagusia den José Antonio Marcén eta Ladis Satrustegi Lesakako alkateak Lesakako Udal Plan Orokorra (UPO) berritzeko lankidetzaren hitzarmena sinatu zuten apirilaren 22an. Plan honen bitartez.

Lesakako hirigintza plana 1999koa da, eta erabat zaharkituta gelditu dela kontutan harturik, hirigintza plana egungo behar eta errealitateara egokitzeko araudia martxan jarriko da.

Plan hau garatzean helburu ezberdinak bete nahi dira, bertzak bertz:

- Xede izanen du lurralde-okupazioaren estrategia eta eredu bat definitzea, udalerrira modu jasangarrian garatzea eta herritarren bizi-kalitatea hobetzea.

- Garapen jasangarriari dagokionez, UPOak herrigunearen hazkunde trinkoa, eraikinak birgaitzea, energia-eraginkortasuna hobetzeko jarduketak, klima-aldaketaren ondorioekiko kalteberatasuna murriztea, mugikortasun jasangarria, irisgarritasuna eta paisaia zaintzea sustatuko ditu.

- UPOa gizartearen behar eta nahien arabera egingen da, herritarren parte-hartze ahalik eta zabalena sustatuz, eta herritarren ezaugarrietara egokituta, eta partikularren eta beren interesen alde eratutako entitateen informazio eta ekimenerako eskubideak bermatuz.

- UPOak tresna erraza eta praktikoa izan behar du, biztanleek ulertzeko modukoa, eta udalerrian jarduera sozial eta ekonomikoari eusteko baliagarria. Halaber, lurzorua antolatzeke, arautzeke eta kudeatzeke mekanismoak ezarri beharko ditu, egungo biztanleriari eusten lagundu eta biztanle berriak erakartzeko, hori guztia Lesakako udalerriko biztanleriaren ezaugarriak (dentsitatea eta zahartze-indizea) kontuan hartuta.

- UPOak lurralde- eta hirigintza-ereduan txertatuko ditu klima-aldaketa arintzeko eta hartara egokitzeko neurriak; horretarako, eskura dauden klima-agertokiak hartuko dira kontuan, eta planean sartu beharreko neurriak identifikatuko dira.

- UPOak lurralde-inguruneari erreparatuko dio, eta hurbileko udalerriekiko harremana indartuko du (Bera, Igantzi eta abar), eta aztertuko du nola lotu daitekeen



LESAKA
gara

herriko bide-sarea lehendik dauden errepideekin eta aurreikusten diren errepide berriekin.

- Proposatutako hirigintza-ereduak eskatutako oinarrizko azpiegiturak (hornidura, saneamendua, hondakinak eta abar) aurreikusi eta eguneratuko ditu.

- Bizitegi-lurzoruaren beharrak konponduko ditu, eta, horretarako, kasua bada, aztertuko du zer behar dauden eta egonen diren babestutako etxebizitzei, eta jarduera ekonomikoei dagokienez, udalerrriaren egungo eta etorkizuneko eskakizun eta nahien arabera, bai eta proposatutako hirigintza-garapeneko ereduaren arabera ere.

- Herritarren zerbitzurako sistema orokor egokiak aurreikusiko ditu, bereziki espazio libreak eta berdeguneak, baita zuzkidurak ere, eman beharreko zerbitzurako leku apropos eta egokienetan kokatuta.

- Kultur ondareari dagokionez, babes berezia behar duen ondare higiezina identifikatuko du, eta ondare horren inbentarioa eta katalogoa jasoko ditu: Bidasoko bide berdea eta Agiñako monumentu megalitikoak.

- UPOan landa-lurzorutik igarotzen diren ibilbideak, bidexkak edo oinezkoentzako bideak sartuko dira, naturaren aldetik interesa badute edota irisgarritasuneko udal-sare bat osatzeko egokiak badira: Bidasoko bide berdea, EuroVelo 1 ibilbidea, GR-11, Trekking Bidasoa GRa eta abar.

- Landa-lurrak antolatu eta haien hirigintza-erregulazioa ezarriko du, gorde beharreko lurzoru urbanizaezin gisa sailkatuta, kontuan hartuta haien nekazaritza-, baso- edo abeltzaintza-balioa, paisaia-, arkeologia-, kultura- edo ingurumen-balioak, eta lurralde-konektagarritasuneko funtzioak.

- Udal Plan Orokorrak berrikusi beharko ditu garatu gabe gelditu diren egikaritze-unitateak eta unitate asistematikoak, hiri-lurzorukoak eta lurzoru urbanizagarrikoak, eta herrigunearen hazkunderako eredu berria planteatuko du, herritarren egungo beharretara eta egungo sustapen-ahalmenetara egokitua.

- UPOak planteatuko du zein etxebizitza- eta hirigintza-ereduk izanen duen lehenasuna, kontuan hartuta zer behar dituzten herritarrek gaur egun, ez dadin erabili eredu zaharkiturik edo testuingururik gabekorik.

- Udal Plan Orokorrak Onin ibaiaren uholde-arriskua aztertuko du, batez ere herrigunean, Landazelaia aldean eta Otsango auzoan, egungo uholde-arriskuaren



arabera egokituko ditu aurreikuspenak, eta ibaia bideratzeko aurreikusten diren jarduketak jasoko ditu.

- Udal Plan Orokorrak aztertuko du zer hobekuntza egin daitezkeen ibaiertzeko pasealekuan jarraitutasuna egon dadin, helburu hartuta Otsango eta Biurrana auzoak oinezkoendako lotzea, ibaiaren ibilguari jarraituz.

- Udal Plan Orokorrak Landazelaiko eremua berrantolatu beharko du, uholde-arriskura egokitzeko eta hura murrizteko aurreikusten diren jarduketak jasotzeko.

- Udal Plan Orokorrak aztertuko du zer aukera dagoen Arcelor-Mittal pabiloi industrialean jarduteko eta haren zati bat berreskuratzeke, beste erabilera batzuk izan ditzan.

- Udal Plan Orokorrean txertatuko da eta erantzuna emanen zaio NA-4001 saihebidetaren garapenari eta loturari (gaur egun Arcelor-Mittal industrialean bukatzen da), Biurrana aldean NA-4000 errepidearekin lotzeko eta Nabaz auzorako sarbidea hobetzeko.

- Udal Plan Orokorrak hirigune historikoa mugatu beharko du, Intereseko Eraikinen Katalogoa berrikusi, eta lehentasunez birgaitu beharreko area bat mugatu eta hari dagokion udal ordenantza onetsi, katalogatutako eraikinak birgaitzea sustatzeko.

- Udal Plan Orokorrak plangintzaren egitura orokorrean txertatu beharko ditu merkataritza erakartzeko eta antolatzeke planaren irizpideak, interes orokorraren aldeko eta udalaz gairdiko ikuspegia jasoko du, zenbait eremutan merkataritza biziberritzeko jarduketak aurreikusiko ditu, eta lurzoruaren sailkapenari eta kalifikazioari dagozkien kontzeptuak eta definizioak egokituko ditu.

- Udal Plan Orokorrak erantzuna eman beharko dio Lesakako herrigunean aparkaleku-plazak ezartzeko beharriari, eta aparkaleku-plaza publiko gehiago ezartzeko berrantolaketa eta aurreikuspena egiten ditu. Halaber, baldintzatzat ezarriko du herrigunean dauden eraikinak egokitzean plaza berriak aurreikustea.

- Udal Plan Orokorrak Lesakako auzo tradizionalak mugatu beharko ditu, eta argi eta garbi bereizi beharko ditu gainerako lurzoru urbanizaezinetik.

- Udal Plan Orokorrak Alkaiaga Kale Nagusiaren eta Alkaiaga Erdiko kalearen bide-egoera konpondu beharko du, eta kale horiek berroneratu eta berrurbanizatu.

- Udal Plan Orokorrak NA-4000 errepidea oinezkoendako moldatu beharko du Albistur kalean, hirigune historikoa eta Otsango auzoa oinezkoendako lotzeko.



LESAKA
gara

- Udal Plan Orokorrean aztertu beharko da zer aukera dauden Otsango auzoan hiri-berroneratze orokorra egiteko, espazioak berrantolatuko ditu industriako erabilerak eta jarduerak ezartzeko, eta Zambra eraikinaren egoerari erantzuna emanen dio.

- Udal Plan Orokorrak erantzuna eman beharko dio Lesakako osasun-etxea handitzeko ekipamendu-beharrari.

Norbaitek informazio gehiago beharko balu, www.lesaka.eus helbidean edota udalean bertan galdetuta aurkitu dezake.



LESAKA
gara

El Ayuntamiento de Lesaka y el Departamento de Cohesión Territorial del Gobierno de Navarra firman el convenio para la renovación del Plan General Municipal de Lesaka.

El Director General de Ordenación del Territorio de Navarra, José Antonio Marcén, y el Alcalde de Lesaka, Ladis Satrustegi, firmaron el 22 de abril un convenio de colaboración para la renovación del Plan General Municipal de Lesaka (PGOU). A través de este Plan.

El plan urbanístico de Lesaka data de 1999, y teniendo en cuenta que ha quedado totalmente obsoleto, se pondrá en marcha la normativa para adecuar el plan urbanístico a la necesidad y realidad actual.

En el desarrollo de este Plan se persiguen diferentes objetivos, entre otros:

- Tendrá como objetivo la definición de una estrategia y modelo de ocupación territorial, el desarrollo sostenible del municipio y la mejora de la calidad de vida de la ciudadanía.
- En cuanto al desarrollo sostenible, el PGOU promoverá el crecimiento intensivo del núcleo urbano, la rehabilitación de edificios, las actuaciones de mejora de la eficiencia energética, la reducción de la vulnerabilidad a los efectos del cambio climático, la movilidad sostenible, la accesibilidad y la preservación del paisaje.
- El PGOU se realizará de acuerdo con las necesidades y deseos de la sociedad, promoviendo una participación ciudadana lo más amplia posible, adaptándose a las características de la ciudadanía y garantizando los derechos de información e iniciativa de los particulares y de las entidades constituidas en defensa de sus intereses.
- El PGOU debe ser un instrumento sencillo y práctico, comprensible por la población y útil para el mantenimiento de la actividad social y económica en el municipio. Asimismo, deberá establecer mecanismos de ordenación, regulación y gestión del suelo que contribuyan al mantenimiento de la población actual y la captación de nuevos habitantes, todo ello teniendo en cuenta las características de la población (densidad e índice de envejecimiento) del municipio de Lesaka.
- El PGOU integrará en el modelo territorial y urbanístico las medidas de mitigación y adaptación al cambio climático, teniendo en cuenta los escenarios climáticos disponibles e identificando las medidas a incluir en el plan.



- El PGOU se centrará en el entorno territorial y reforzará la relación con los municipios próximos (Bera, Igantzi, etc.), analizando cómo se puede conectar la red viaria de la localidad con las carreteras ya existentes y con las nuevas carreteras que se prevén.
- El modelo urbanístico propuesto contemplará y actualizará las infraestructuras básicas exigidas (abastecimiento, saneamiento, residuos, etc.).
- Resolverá las necesidades de suelo residencial, analizando, en su caso, las necesidades de vivienda protegida y de actividades económicas en función de las exigencias y expectativas actuales y futuras del municipio, así como del modelo de desarrollo urbanístico propuesto.
- Preverá los sistemas generales adecuados al servicio de los ciudadanos, especialmente los espacios libres y zonas verdes, así como las dotaciones, ubicándose en los lugares más adecuados y adecuados para el servicio a prestar.
- En cuanto al patrimonio cultural, identificará el patrimonio inmueble que requiere especial protección y recogerá el inventario y catálogo de dicho patrimonio: la vía verde del Bidasoa y los monumentos megalíticos de Agiña.
- En el PGOU se incluirán los itinerarios, senderos o caminos peatonales que discurren por suelo rural y que tengan interés naturalístico o sean adecuados para constituir una red municipal de accesibilidad: vía verde del Bidasoa, ruta EuroVelo 1, GR-11, GR Trekking Bidasoa, etc.
- Ordenará los terrenos rurales y establecerá su regulación urbanística, clasificándolos como suelo no urbanizable a conservar, teniendo en cuenta su valor agrícola, forestal o ganadero, sus valores paisajísticos, arqueológicos, culturales o ambientales, y sus funciones de conectividad territorial.
- El Plan General Municipal deberá revisar las unidades de ejecución y asistemáticas pendientes de desarrollo, las de suelo urbano y las de suelo urbanizable, y planteará un nuevo modelo de crecimiento del núcleo urbano adaptado a las necesidades actuales de la ciudadanía y a las capacidades de promoción actuales.
- El PGOU planteará qué modelo de vivienda y urbanismo tendrá prioridad, teniendo en cuenta las necesidades de la ciudadanía en la actualidad, para que no se utilicen modelos obsoletos o descontextualizados.



LESAKA
gara

- El Plan General Municipal analizará la inundabilidad del río Onin, especialmente en su núcleo urbano, zona de Landazelaia y barrio de Otsango, adaptará sus previsiones en función de la inundabilidad actual e incluirá las actuaciones previstas para encauzar el río.
- El Plan General Municipal estudiará las posibles mejoras para la continuidad del paseo de ribera con el objetivo de conectar peatonalmente los barrios de Otsango y Biurrana siguiendo el cauce del río.
- El Plan General Municipal deberá reordenar la zona de Landazelai para adecuarla a la inundabilidad y recoger las actuaciones previstas para reducirla.
- El Plan General Municipal estudiará la posibilidad de actuar en el pabellón industrial Arcelor-Mittal y recuperar parte del mismo para que tenga otros usos.
- Se integrará en el Plan General Municipal y se dará respuesta al desarrollo y conexión de la variante NA-4001, que actualmente finaliza en el polígono industrial de Arcelor-Mittal, con la carretera NA-4000 en la zona de Biurrana y mejora del acceso al barrio de Nabaz.
- El Plan General Municipal deberá delimitar el Casco Histórico, revisar el Catálogo de Edificios de Interés y delimitar un área de rehabilitación prioritaria y aprobar la correspondiente ordenanza municipal para promover la rehabilitación de los edificios catalogados.
- El Plan General Municipal deberá integrar en la estructura general del planeamiento los criterios del Plan de Atracción y Ordenación Comercial, recogerá la perspectiva de interés general y supramunicipal, contemplará actuaciones de revitalización comercial en determinados ámbitos y adaptará los conceptos y definiciones relativos a la clasificación y calificación del suelo.
- El Plan General Municipal deberá dar respuesta a la necesidad de implantación de plazas de aparcamiento en el núcleo urbano de Lesaka, realizando una reordenación y previsión de nuevas plazas de aparcamiento público. Asimismo, establecerá como condición la previsión de nuevas plazas en la adecuación de las edificaciones existentes en el núcleo urbano.
- El Plan General Municipal deberá delimitar los barrios tradicionales de Lesaka y separarlos claramente del resto del suelo no urbanizable.



LESAKA
gara

- El Plan General Municipal deberá resolver el estado viario de las calles Alkaiaga Nagusia y Alkaiaga Erdiko y proceder a su regeneración y reurbanización.
- El Plan General Municipal deberá peatonalizar la carretera NA-4000 en la calle Albistur para conectar peatonalmente el casco histórico con el barrio de Otsango.
- El Plan General Municipal deberá analizar las posibilidades de regeneración urbana general en el barrio de Otsango, reordenará los espacios para la implantación de usos y actividades industriales y dará respuesta al estado del edificio Zambra.
- El Plan General Municipal deberá dar respuesta a la necesidad de equipamiento para la ampliación del centro de salud de Lesaka.

Si alguien necesita más información, puede encontrarla en la dirección www.lesaka.eus o en el propio ayuntamiento.